

«Ez du botikarik hartzen»

Armstrongen mediku Lawrence Einhornek zurrumurruei aurre egin die

Erredakzioa / Donostia

LANCE ARMSTRONGEN medikuak Tourreko liderraren gaineko zurrumurruei aurre egin die. Lawrence Einhorn onkologoaren esanetan txirrindulariak minbizia kontrolpean edukitzeko ohiko azterketak besterik ez ditu egiten.

Zurrumurruen arabera *Interleukin* izeneko botika bat hartzen omen du. Botika hau minbiziaren kontra erabiltzen denetako bat da. Medikuek garbi adierazi nahi izan du hori ez dela horrela *Le Monde* Frantziako egunkariari egin-dako adierazpen batzuetan: «*Interleukin*-a oso produktu toxikoa da eta erabat baieztatu dezaket Lance Armstrongek ez duela hartzen».

Einhornek esan zuen Armstrongek sei hilabetez behin erradiologia azterketa eta odol analisiak besterik ez dituela egiten; izan ere, «gaixotasuna birsortzeko aukerak murrizten diren arren gerta baitatiteke».

Armstrongek bi urte t'erdi egin zituen kimioterapiarekin, baina hala ere egunero ibiltzen zen 50 eta 80 kilome-



LUIS GENE / EFE

Armstrongen medikuak hark *Interleukin*-a hartzen duela gezurtatu du.

LAWRENCE EINHORN

Armstrongen medikazio auzia

■ ■ ■ «*Lance Armstrongek ez du botikarik hartzen, gaixotasuna kontrolatzeko azterketak besterik ez ditu egiten*»

tro inguru bizikleta gainean entrenatzen.

Tourrean nola dabilen ikusita poztu egin dela dio, eta horren ondo badabil «bere ausardia eta izaera gogorrari esker» dela esan zuen, eta ez dopinagatik.

Lapurra beti maltzurra

Xabier Usabidaga

esan liteke bere itxura juzgatuz; bihurria ematen du, benetan. Hantxe gogortuko zitzaion larrua, inoren aurreran makurtu nahi ezik, eta hamaika aldiz entzuna, «arrangiarisi» (nor bere kasa moldatzea esan nahi du), ondo aski ikasia duela ezagun du, ez baitirudi lotsak enbarazu handirik egiten dionik. Ikusi egin behar zen haren jar-

rrea etapa osteko elkarriketan jendeari txalo jo eta orru egiteko aginduak eman, imintzioka: 24 urterekin!!

Zakur zahar sena berez duenari eta halako eskola izanik, berak ez beste nork irabazi behar zuen atzoko etapa? «Hau duk pagotxa», esango zuen bere artean. «Indarrez hainbestean nabilela, laster engainatu behar

dizkiat, babalore hauek guztiak». Txentek eraso jo zuenean behintzat, atzean zen, babesean, begiak argi argi zituela. Gero, nafarrari ezina nagusitu zitzaionean, Serpellinik behin eta berriro eskatzen zion erreleboa ezker eskuko keinu arin batekin, mesfidati begiratzeko baitzion nekatu plantak egiten zituelakoan. Serpellini ez zen fio, eta behin ez, bitan jo zion eraso, Commesso baino indartsuago zihoala antzeman zuelako, edo hala iruditu zitzaiolako. Lapurra, ordea, beti da maltzurra.

erreakzioak

Salvatore Commesso • Saeco

«Italiako txapelketa bezain garrantzitsua da garaipen hau»

► «Zaila da bi garaipenen artean aukera egitea. Biek dute garrantzi handia, biak dira eta profesionalek jautsi egitean amesten dituzun garaipen horietakoak. Beroaren eraginez etapa gogorra izan da. Ohituta nago tenperatura hauetara, baina nahiko gaizki pasatu dudala onartu beharrean nago. Zorionez, jende asko gindoazen ihesaldian eta lan gutxiago egin behar izan dugu».

Abraham Olano • ONCE

«Ihesaldia oso garaiz sortu da, gaitzerdi»

► «Bero handia egin du eta oso lasai joan gara bukeran. Ihesaldia oso garaiz sortu da, eta gaitzerdi. Horregatik joan gara lasaia. Azken kilometroetan etapa erabaki gabe sartu izan bagina, ikaragarria izango zen hau».

Fernando Escartin • Kelme

«Oso-oso etapa gogorra izan da»

► «Etapa normal batean baino askoz gehiago edan dugu eta hori ongi datorkit niri. Oso-oso etapa gogorra izan da. Beroa batean etorri da. Nekea, hala ere, ez da gaurkoa bakarrik, aurreko egunetako ere bai».

Paco Cerezo • Vitalicio

«Ohituta nago berora, baina indarrik gabe gelditu naiz»

► «Etengabe gora eta behera ibili gara eta airerik ez zegoen. Ni ohituta nago berora, eta ez da beroa izan indarra kendu didana. Orain arte korritutako lasterketa guztiek kendu didate niri indarra».

TORRE DEL GRECO. Naples. Italia. Han jaio zen orain 24 urte atzoko garailea: Salvatore Commesso. Eta han hezi, bere zorionerako. Napolesi buruzko aditza, gutxi asko, denon belarritar heldu dira noizbait, eta, niri behintzat, burura datozkidan lehen kontuak mafia, camorra, delikuentzia eta horrelakoa dira. Ba, hantxe hazi, asko ez txikia baita, eta hezi zen atzoko protagonista beltzarana. Hango kale estuetan makina bat barrabaskeria egin izango da, noski, Commesso; hala